

3-5 URTE BITARTEKO AHOLKUAK

- 3-5 urte bitartean, ez da gomendagarria haurrak egunean zehar, ordu bat baino gehiago pantailak ikusgai edukitzea.
- Dagoeneko badaude bideo-joko batzuk 3 urtetik gorakoentzat sailkatuta daudenak PEGI sistemaren arabera. Frogatu nahi izatekotan ziurtatu aproposak direla eta denbora oso era tinkoan kudeatu.
- Joku librea, eta aisialdi alternatibo bat eraikitzen joan behar gara txikiak direnetik, pantailarik gabeko jokoak eta ekintzak sustatuz.
- Haurren argazki eta bideoak sare sozialetan partekatu baino lehen pentsatu zergatik egiten ari zaren eta zein ondorio izan dezakeen ekintza horrek zure haurraren etorkizunean.
- Hurrek imitazioz ikasten dute gehien bat haien lehenengo urteetan bereziki, horregatik oso garrantzitsua izango da beste aspektu askorekin bezala pantailen erabileran ematen diegun eredia.